

**feu
nouveau**

REVUE MENSUELLE
Rue des Jésuites, 28
B 7500 - TOURNAI (BELGIQUE)

Belgique - België
P. P.
Tournai X
5/100

Hernandez

FEU NOUVEAU
RUE DES JESUITES, 28
B - 7500 TOURNAI
REVUE MENSUELLE - MAI - No : 7/88
=====

201494	MONSIEUR
	ANDIAZABAL PIERRE
1	GRAND SEMINAIRE
	AVENUE DARRIGRAND
F	64100 BAYONNE

Hernandez

A1-3

Agur Lafitte adixkide eta ja
jeun agungerrria :
Zorionik aundiens emanaz Herri
tik egiten ari zeran laneranga-
tik,otoitzen dizut argitaratzeko
bieltzen dizkitzu-dan lerro oiek
"Herria'n", bertsularien eguna an
tolatzekt.

Nik ez dakit emengo
euskera josten; orregatik ager-
tuko dezun nik bieltzen dizuan e-
ran ,edo obe ba-zaizu,biurtuko

dezu lepartarara. Uste det ga-
raia etortzen darian ez diguzu
la ukatuko zure laguntza ber-
tsulariak epaitzeko.
Agur t'ardi dagizut

D^o ERNANDORENA

SAINT-JEAN-DE-LUZ



GERNIKA

Instituto Vasco de extensión cultural

SAN JUAN DE LUZ 13 - 5 - 47

Agur Laffite adixkide :


Ikusi det " Herrian " eman dezula bigarren zenbakian arribidea .
Milla esker .

Gaur idazten dizut esateko gure bigarren zenbaki orretan sartu genezake, ^{ba}ongi ba-zaizu, zuen " KANTUZ " dalako liburu oñren agerpen edo anuncio bat.

Nork daki ? Bear bada Amerikan atsegingo luke eta salduko zinuzteke sail bat. Zuk ikusi. Zu seiatzan zera gure revistan alde; eta guk saiatu nai degu zuen gauzen alde. Laixter asi bearke degu bertsulariekin ere.

Ba dakizu eldu astean ondarrera irtengo duala revista. Beraz ordurako preparatu bearke zenuzteke " Kantuz'en " orriak, bada beriala baldu bear ditugu Ameriketara.

Besterik gabe besarkatzen zaitut


Ernandorena

HERNANDORENA & C^{IE} S.A.R.L.

Capital 1.000.000 de francs

IMPORT - EXPORT

Siège Social : 26, Avenue Marceau - 8^e

N^o Immat. : 347.518 B

PARIS C. C. P. 7052-13

CORRESPONDANTS A :

BARCELONA - MADRID

LONDRES - B-AIRES

SÃO-PAULO - NEW-YORK

Adresse Télégraphique : HERNANDORE

Téléphone : LAB. 26-18

Bureaux : 53, Rue du Rocher - 8^e

Votre Réf.

Notre Réf.

PARIS. Le tik Ustaritz'era Api -

rilla ren 28'an

Laffitte jaun adixkideari agur :

Bizitziak lanak ematen dizkigu , batez ere guk nahi genduken lana egiten uzten ez digutenian , neri osagille bezela uzten ez diraten bezala . Orregaitik beartuak arkitzen gera zer bait egitera gure ofizioz kanpo , seme-alabairi jaten eman nahi ba^{de}gu .

Ikusten dezun bezala bertze adixkide zonbaitekin sal-eroste - ko Soziedadia sortu degu . Nik or^{de}a ezin nezake lan egin ez ba-det, dalako " Carte de Travail " . Orregaitik eskatu det juan den astian Donubane'ko Polizian : emendik pasako da Miarriz'era eta azkenik emendik PAU'era . Erran diratenez azken aipatutako erri ontan errai - ten dute azken itza .

Ikusten dezu inor nere eskaera au lagundu leza- kenik..? Ba-dakizu arazo guztietan adixkideak bear dirala, nãtz ta eskatzen dans bidezkoa izan .

Nik dauzkat asko ixtimatzen dituzten bi gauza : ZORTZI seme-alaba , eta oietatik BOST emen sortuak, eta ganera " La carte de séjour de résident privilégié " .

Ikusten ba-dezu inor arazo au pusatu lezakenik ,asko esker- tuko nizuke edo berari erratia , edo berarentzat neri bi itz igortzia

Bertzerik gabe , eta eskerrak biotzez eta urretik e - manaz agurtzen zaitut bosteko estu batekin

Etxeko zuzenb^{id}ia : *M. J. Ustaritz*
College d'Espagne
Cité Universitaire
PARIS (14^e)

2-4-70

Dr. HERNANDORENA

Clinica Dental
Ortz-Agiñetako
SENDAKINTZA

Miramar, 8
Teléfono 641303
FUENTERRABIA

Azur adixtela,

Be itz saioak gibelatu egin beraz
ditugula esateko.

Azurrean 26^a minutaren kistaltze urteurre-
na bai-zen, ez digute utzi egun ortan e-
gitea.

Beraz, saioak izango dira:

- Leizua Azurrean 26 an
- Beguraren maiztasun 3 an
- Minutuan " 10 an

Wiley eta etoriko zera ~~etxeko~~

46023 10 69

Dr. HERNANDORENA
CLINICA DENTAL
ORTZ - AGIRETAKO
SENDAKINTZA

MIRAMAR, 8
TELEF. 64 19 03
FUENTERRABIA

Agur Lafitte jaun adixkide ,

~~Eskutara~~ zure eskutitza erantzuna-
kin . Milla esker .

Erantzun denak eskutaratzen dituanian , iritzi-bilduma bat e-
gingo degu .

Bitartian nere agurrik oberenakin

P.S. Sara'ko egunagatik idatzi zenduna ongi zen . Bakarrik
BIZKAIA - LAJURDI arteko gudaketa etzen,nere ustez , on-
gi ikusten . Eta ori garrantzi aundikua zen .

Bertsularien arteko gudaketa baztertu eta Herriak gudake-
tu bear ditugu .

Ori obeki da ,bai bertsularientzat eta bai.....Euskale-
rriarentzat .

Ez derizkiotzu...?

Dr. HERNANDORENA
CLINICA DENTAL
ORTZ - AGIRETAKO
SENDAKINTZA

MIRAMAR, 8
TELEF. 64 13 03
FUENTERRABIA

Agur Laffitte jaun adixkide ,


Eldu den Maitza,ren 19,n bertsulari Txapel-
keta bat egitekotan gera Sara,n .
Egun ortan epaitzeko era berri bat ikusi nahiko nuke eta atsegifenez iku-
siko zaitugu Sara,n.
Goizetik Meza Nagusi eder bat egingo da Bertsulari eta Txistuakin . Al-
de huntan lehen aldikotz.

Jokatuko dute BINAZKA Lapurdi-Baxenabarra,Bizkaia,ren aurka, Aspilla-
ga eta Lopategui .

Ezin ba-dezu igorri othoi bi itz zuzenbide huntara :

Dr HERNANDORENA
FUENTERRABIA (Espagne)

Nere agurrik oberenakin


Ondarrabi,tik Apirillaren 21,an

P E R T S L A R I A K
=====

11

1960 : Ene azken ekinaldia pertsulariekin.....bortxaz .
Sara Paris-Louhosoa eta ...Maketa'ko gerta'kizun ezin sinetsia.

Geiago luzatu gebe azken segida huntan sartu nahi nituzke erraiteko gelditzen diran berri denak.

Asteko, 1960'garren urtean gauzak 1958'n bezala, berdin-berdin, pasatu ziran. Paris'eko Sozietetiek etzituzten artu nahi izandu bere gain Eskuararen Eguneko fressak pertsulariekin . Eta ni neroni beartu nitzen nere gain artzera . Beti kondizione berakin, au da, Heskual-Herriko Eskualzaleen Biltzarre-gendik lortu zezatela guk Heskual-Herriean bilkura egiteko baimena. Baimena eskutan izatu gendunian, lehen bilkura Sara'n egitera deliberatu gendun .

ZER-GATIK SARA'AN ?

Ez bakarrik Axular'en oroimena-erengatik, ez eta ere bertako auzapez Dutournier jauna, pertsulari maitale eta laguntzaile kartsuenetakorik dalako . Sara autatu gendun , "... Ain maite nuen txokua utzita, eritza-zenen igesi " alde huntara ethorri ginanien, Baxu'ko'k erraiten zuan bezela, herri ori izandu zelako ongi-etorritik maitekorrena egin zigun herri bat Eskualdunak sekulan shantziko ez degun oroitzamena gordetzen diogu Sara'ri. Egun ~~bat~~, Orregatik autatu gendun SARA pertsularien bilkura jokatzeke, egun ertan.

BILKURAREN BIZIGARRI. Ahal bada, beti asmatu bear da bilkura bakoitzari bizigarri pixke bat emateko ^{zerbait}. Eta egun ertan ~~xxxxxx~~ bururatu zitzaigun entzule berak juze zezatela pertsulariak . ~~xxxxxx~~ ~~xxxxxx~~ ~~xxxxxx~~ Ortarako billete bakoitzian lau lerro ezarri ziran entzule bakoitzak bere boza eman zezan.

BILKURA. Una hemen "Basque Eclair " egunkariaren zati bat egun artez :
".....Pour cloturer le banquet M.Paul Dutournier, maire de Sara, a pris la parole exaltant l'union de tous les Basques, ~~un~~ dont un magnifique témoignage a été donné à St. Jean de Luz aux obsèques si émouvantes du "Lendakari" Jose Antonio Aguirre " .

JOSE ANTONIO AGUIRRERI OMENA . Beti Basque Eclair'etik : "...M.Hernandore

2/

a rappelé la mort de M. Aguirre. Aguirre aimait les "pertsularis" a-t-il dit, il aimait les entendre et il aimait les aider. C'est pourquoi aujourd'hui les pertsularis sont en deuil. Instant solennel et combien émouvant : toute l'assistance s'est levé pour écouter l'ultime "agur" des versificateurs à la mémoire de M. Aguirre .

Une Kalbador'ek eman pertsua:

Lendakari maitegarria
ari izan zira lanian
eskueldunetasun amodia
barrestzeko denian
Orei zu goitik joan zira
gu gelditu be-aldian
Beinan zintzoki jarri gaitezen
Utzi gaituzun bidean.

Mattin'ena :

Zoritxerrear il zeiku beraz
Aguirre Lendakaria.
Nere partetik pena sundiarekin
entzun bai-nuen berria
Geroztik huna dolu haunditan
bizi da Heskual-Herria
irudi bai-tu site gelduta
bizi den familia.

Eta egunkari berek bukatzen du erreraz : "...Nos compliments vont également aux organisateurs de cette triomphale journée.

L'Eskual-Herria reste fidèle à ses ~~purex~~ traditions les plus pures .

Eguna arras ongi pasatu zen. Baserri, Bilbo'ko Irigoyen eta bertze buruzagi sunitz bertan ziren . Azkenian jendiak Kalbador eman zuan garaille.

PARIS'eko ESKUARAREN EGUNA 1960'ko Apirillaren 23 eta 24'n.

Sare'n autatu iru pertsulari agertu ziran Paris'en AZKENA jokatzera.

Enbeita Bizkai'ko txapeliduna Irun'dik etxeratu zan gaxorik .

1958'ko bilkuragatik erranak berriro aipa genezazke hemen. Ez du balio.

Bakarrrik telebisioa zen eskas. Radiq denak, frantsesa, alemana, ingless eta espenolak bilkuraren berri eman zuten. Berdin egunkariak. Unibersidade'ko gizonak ere bertan ziren...

Hune zer erraiten zuan "Herria'n" "An zen batek" : Gure hizkuntza zeharrean ez dut hitz bat aski azkar eta sarkorrik hatzemaiten ahal, egun horri espliku bat emateko. Errango dut choragarria zela.....Zer koblek, zer irriak eta zer alegrentzia...." - Guk ez genezake geigo erran.

MATTIN GARAILLE . Ez da harritzeko. Lehen bilkuran Baserri'ren gibeletik zen...eta guttiz . Paris'eko jendeak gogotik maite dute Mattin eta badirudi bere ere hemen fleite espeziale batian dela. J. Irigaray'ek zion "Mattin'en ondo karkelaka, gorputza plegaturik eta neskek garrasia eta ohia . "

X X X

SARA'n Kalbador geraille, PARIS⁴en aldiz MATTIN . Nor txapeldun...?
Irebasle bat bear zen nahi-te-nahi-oz . "Pil edo face" bota genezaken. E-
tzen bidezkoa. Hontan norbeitik gogoratuazi zigun Kalbador eta Mattin han-
dik ehun gutxitara Ameriketara egaltzekuak zirela . Eta bat-batian burura-
tu zitzeigun txapelketaren AZKENA eta bi pertsularien ~~AGURRA~~ AGURRA, biak
batera egin zitazkela .

Nun egin...? Heskual-Herrian duarik gabe . Zoin herritan...? Eta Louhoso'ko
erri ttipia autetu gendun . Ez bakarrik Larzalde'ren erria zelako, ^{Baita ere} ber-
tze oroitamen gogoragarri batengatik .

Eskualzaleen Biltzarrek Louhoso'n egin zun 1933' ⁿ ~~kaxxi~~ urteroko bilkura.
Gu Donostia'tik ethorri ginan . Eta bazkal denboran, or altxatzen da e-
xerita zegoen lekutik gizon adineko-mear bat, eta bazkal ~~xxix~~ esku-zapie
bizkarretik zinzilika zuzela ^{eta eskuak dar-dar} ~~guzun~~ asten da, mahi bi lerroen erdian, goitik
bere pasietzen miressgarrizko pertsuak ematen eten gabe.... zeruko ainge-
ruetzaz . Sekulan ahantziko ez dugun oroitzapena utzi zigun Senpere'ko
Mattin'ek egun artan . Irakurtzen ere etzekien gizon bat aingeruetzaz
pertsuetan [¡] Eta nolako pertsuak...!!

Geroztik Aldude'ko pertsulari-egunean eman zeukun explikazio bat P. Lafit-
te ^{juantik} . Una zer zion "... Orhoit niz Matchin Irabola bertsolari zenez. Sen-
pertarra zen eta Chenpelaar famatuaren odolekoa. Harritzen gintuen denak
bere arrazoin azkar ugariekin, eta Mgr Saint Pierre'k deitzen zuen "gure
filosofoa" . Galde egiten baiginion, halako betez, nundik heldu zitzeigun
atheraldi miressgarri hoik, iherdesten zeukun : " Nik ez dut behin ere li-
bururik irakurri; bainan igendetan aditu prediku guziak kaskoan sartzan
ditut eta gogoan erabiltzen . " Ara hor Mattin'en eskola.

Etzuen segurki berarengatik errango Gabriel Aresti'k orain dela egun gu-
txi "Z. Argie'n" erreiten zeukuna : " Elizan sartzan garenean handik irte-
tzeko gutizia bizi batekin sartzan garelako eta kulpitotik apaizak esa-
ten dituen dotrinak entzuten eztitugulako . "

A Egun arteko oroitzenen zoragarriengatik autetu gendun LOUHOSOA.

X X X

4/

Eta Louhosoe'ko egunaren "bizigarri", Eskual-Herriko pertsulari guzién "KONZENTRAZIO" eder bat egitia pentsatu gendun. Pertsulariek ikusiko zuten Kalbañor eta Mattin'en ^{arteko} azken guda, eta bide batez, egingo zizkioten bi pertsulari oieiri euren agurra Ameriketara egaldu aintzinetik. Ortaraiko Bilbo'ko Irigoyen adixkideak eta Isasondo'ko, Lete' gipuzkoarre^K ~~ren~~ euren laguntza eskeini ziguten.

Eta "bizigarri" orreri piper pixka bat goixengo emateko, LEKUONA jaunak, pertsulari gaiten Heskual Herriko gizon jakintsuenetarik bat, Lekuona jaunak agindu zigun bera ere ethorriko zela Louhosoe"ra pertsulari konfe-^{giri} rentzi bat ematera euren doai miresgarrietaz.

AMAR pertsulabi, gipuzkoar eta bizkaitar itzemanak genitun. Duderik ga-be Louhosoe'ko egune gogoragarria izango zen.

Eta huntan sortu zen.....

MAKEA'KO GERTAKIZUN EZIN SINETSIA EZIN SINETSIA .

Makea'ko herriak pertsularien egun bat gertatu zun. Justuki gu Heskual-herri're jinak ginan Louhosoe'ko bilkura gertatze^{za}. Eta Makea'ko bilkura sretzaz baliatzera pentsatu gendun gure alde zabalikunde edo propa-ganda pixka bat egiteko.

Makea'ko plezen ESKUALZALEEN BILIZARREKO BI JAUN BURUZAGI aurkitu geni-ziguten. Eta ikusi ordurako erran ~~zarkizun~~ guk ez gendule egingo Louhosoe'ko bilkura..... Berak debekatzen zigutela, zeren Paris'eko jendeak etzuten esk^u Duderik Heskual-Herrien bilkura egiteko.

Guk astetik ezin sinetsi gendun erraiten zigutena: Ain zen itxuregabe-koa. Bainen ez, ez. Etzen blegarik. Seriuski mintzo ziren.....

Eta bertzen ondesunetan sartzan den gizon erroitz bat kanpore botatzen den gisa berian.....ni eta Paris'ko Sozietatiak Heskual-Herri'ko pertsu-larietatik kanpore bota ginuzen.

Eta azkenian, neretzat ahalkegarri zen kondizione batekin utzi ziguten Louhosoe'ko bilkura egiten. Nik konpromiso bilkur egiteko neurri denak artuak nituen. Kondizione ur onertu, bertze biderik ez nuen.

LOUHOSOA URA BILKURA

5/

BI JAUN OIETAKO BATERI. Orain dela denbore gutxi idatzi zirezun errenez
"...Nik ez dakit hortaz, zuk edo geuk, errazois norik zuen. Hori beste nor-
baitek esan bear luke . "

Eta nik dizut : Ondo da eta orain da garsia . Nik "Herria'ren " irskur-
le denak artzen ditut lekuko, bereziki pertsulari-maitelek . Mintza, be-
rez, eta agertu hemen zuen arrazoinak gu heskual-Herri'tik kanpore bial-
tzeko.

Nik oraitik-beretik erreiten dautzut, zuen jokabideak jauntxokeri baten
itxura ikaragarria dautsala eta jokabide orrek mesere beñō kalte geigo
egin diotela pertsularieiri . Zuen arrazoinaren zai gelditzen naiz .

LOUHOSOA'ko BILKURA

Dena oso ondo pasatu zen . Bizkai'tik ethorri ziran lehen eta bigarren
txapeldunak: Aspillaga eta Mugartegi.

Gipuzkoa'tik oraiko lehen eta bigarren txapeldunak : Uztapide eta Iztue-
ta, Mitxelena eta Garmendiarekin.

Lekuona jaunak bere itzaldi edo kanferentzia egin zun eta jendiak Xalba-
dor autatu zuan GARAILLE.

Nik, nere baitan ixilikako azken-samin agurra egin nioten pertsularieiri.
Bai nekien ura zela nere....AZKEN EKINALDIA .

"E.L'ri" BI ITZ. Nere idatziek irakurtzeko pazientzia izen be-duzu, iku-
siko zendun Heskual-Herriko alde huntan bertze aldian bezin bat lan egin
dela pertsularien alde .

Eta zuk Donostie'ko Anoeta'n ikusi zendun arrabotse aren asiere edo perz-
pizkundee bers, alde huntan esi zela bertze aldian oraindik...."mutututa"
zenden garsi batian .

Neiz orain ixil-epal aldie izan.....

XALBADOR'ek AZKEN ITZ . Juan den udaran Baigorri'n pertsulari festa be-
tian egokitu nitzan . Eta Xalbador'k mahi batetik bertzera oiu egin zi-
ran errenez " : Hernandorena , ZUK UTZITA BEZELAKE SEGITZEN DEGU: BERTIN

BERTIN

egin eZ. Zoritzarrez eta tamalez....EGIA . *HERNANDORENA*
Orrek erran mahi du : Bertzeri lenik egiten utzi ez ...eta berak deusik